

INFORMAZIO GEHIGARRIA DATUEN BABESARI BURUZ, ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAKO, BANAKAKO ENPRESABURUENTZAKO ETA PROFESIONAL AUTONOMOENTZAKO 2018KO EKITALDIKO FINANTZA-LAGUNTZAREN PROGRAMARI DAGOKIONEZ

Nor da datuen tratamenduaren arduraduna?

Nor: Eusko Jaurlaritzaren Finantza Politikako Zuzendaritza
Posta elektronikoa: finanzas@euskadi.eus

Datuen Babesaren ordezkariaren harremanetarako datuak: dpd-dbo@euskadi.eus
945.01.85.11

Zein datu eta zertarako tratatzen ditugu datuok?

Banku-entitate kolaboratzaileek emandako datuak tratatzen ditugu, Finantza Politikako Zuzendaritzak enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei 2018ko ekitaldian finantza-laguntza emateko programa kudea dezan; programa hori enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako 2018. urterako finantza-laguntzaren programa garatzen duen uztailaren 10eko 103/2018 Dekretuan dago araututa.

Noiz arte gordeko ditugu datuak?

Programaren babespean formalizatutako eragiketak amaitu arte gordeko ditugu, aplikatu beharreko zerga-araudian xedatutakoarekin bat eginda.

Zein da datuak tratatzeko lege-oinarria?

Datuen trataerarako lege-oinarria interes publikoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legearen 9.2 artikuluan oinarrituta, baita programari atxikitzeko interesdunek aurkeztutako eskaera ere.

Zein dira datuen titularren eskubideak?

Eskubidea daukate *Finantza Politikako Zuzendaritza euren intereseko datu pertsonalak tratatzen ari den* egiaztatzeko, eta hala bada, datu horiek eskuratzeko. Ondorio horietarako, eskaera egin eta gero, tratatzen ari diren datu pertsonalen kopia emango dizugu ohiko erabilerako formatu elektronikoan, beste modu batera egiteko eskatzen denean izan ezik.

Halaber, zuzenak ez diren do osorik ez dauden datuak *zuzentzeko* eskubidea daukate; horretarako, datuak ez direla zuzenak edo osatu gabe daudela egiaztatzeko agiria ekarri behar dute. Hala badagokio, datuak *ezabatzeko* eskatu ahal izango dute, datuok beharrezkoak ez direnean batu ziren xederako edo modu ez zilegian tratatu direnean.

Zenbait kasutan, datuen trataera *mugatzeko* eskatu ahal izango dute, eta kasu horietan, erreklamazioak formulatu, egin edo babesteko baino ez dira erabiliko.

Era berean, egoera partikularra dela-eta, datuak *ez tratatzeko eska dezakete* eta Finantza Politikako Zuzendaritzak tratatzeari utziko dio, erreklamazioak formulatu, egin edo babesteko izan ezik.